



@SHERWOODFOTO

Turistez betetako itsasontzi erraldoien porturatzea blokeatu dute Venezian

Sara Arruabarrena Azkarate

@s8ara

Egunero milaka turista eramaten dituzten itsasontziak ingurumenean eta hirian eragiten ari diren kalteez kezkatuta, #NoGrandiNavi lelopean festa eta aldarrikapena uztartu dituzte Venezian, gurutzatzen porturatzea debekatzeko eskatuz. Itsasoz, 30.000 turista iristen dira egunero goi-denboraldian Veneziaara.

“Ez dugu gauzez hutsik egongo den turisten hiririk nahi; arnasa hartzea posible den hiria nahi dugu”, azaldu du ekintza antolatu duen Generation 90 mugimendua. “Hiri errealean biziko garen azken belaunaldia izango gara agian, etxebizitza eta lana bilatzeak edo eguneroko bizitza kalean egiteak normala izateari utziko baitio”, gaineratu dute. Mugimenduko kideen esanetan, San Marko plazara joan, *selfie* bat atera eta barkura bueltatzea da turistek egiten dutena. “Disneylandiara baletoz bezala jokatzeko dute, baina batzuentzat bizitokia da Venezia”.

Abuztuan *Turistak kanpora! Hiria suntsitzen ari zarete* lelodun kartelak zintzilikatu zituzten Venezian. Nazio Batuen Erakundeak urte hasieran ohartarazi zuen 2017rako Venezia gurutzatzen

porturatzea debekatzen ez bazuen, desagertzeko bidean dauden hirien zerrendan izango dela, masifikazioa, kutsadura edota paduren higatzea tarteko.

Xuban Zubiriak ARGIAN idatzitako *Turismoak itoko du Venezia* erreportajearen (2517. zenbakian) emandako datuen arabera, azken urteetan 100.000 biztanle galdu ditu hiriak, turismo ereduak hirian aukerak gutxitu eta bizimodua izugarri garestitu baitu. Egungo 2.400 hotel egituretatik epe ertainean 50.000ra igarotzea aurreikusten da eta veneziarrak kezu dira, erdigunea hotelek eta turistek begirako jardunek jan dutelako, eta periferiara bizitzera joan behar izan dutelako bertako herritarrek.

Donostian ere, gaia aztergai

Euskal Herriko zenbait tokitan dugun turismo ereduaren azterketa jarri du hainbatek. Donostiako Alde Zaharreko bizilagunak, adibidez, azken boladako turista saldoarekin kezkatuta daude, bertako bizimoduan, zaratan, salneurrietan... eragin duelako eta auzoko nortasunari kalte egin diolako (denda eta saltokietan, batez ere). Eneko Goia Donostiako alkateak berak esana da: “Iritsi da momentua turismo ereduaren benetan aztertzeko, gogoeta bat egiteko eta mugatu ere ezartzeko”.

EKONOMIAREN TALAIAN

Bankia-Can, ustelkeria bera



Juan Mari Arregi

Espainiako Auzitegia Nazionalean hasi da “black txartelen” makro-e-paiketa. Bankiako 65 zuzendari eta kontseilarik (PP, PSOE, IU, CCOO eta UGT) erabili zituzten euren probetxu pertsonalerako. Txartel opaku horiekin, Rato ministro ohia eta Caja Madrideko presidente Blesa buru zituztela, zuzendari horiek 15,5 milioi euro gastatu zituzten. Milioi horiek Bankia finantza taldearen kontura fakturatu zituzten, honek 22 milioi euroko laguntza publikoak behar zituen bitartean.

Euskal Herrian CAN Nafarroako Kutzaren kasua daukagu. Hemen ez dira gastu pertsonalak egiteko horrelako txartelak aurkitu. Baina dieten kasua ezagutu dugu. Horien bidez, politikariek euren soldata biderkatzen zuten bileretara joateagatik, teoriarik euren kontrolatu beharreko erakundea hondamendira zihoan bitartean. Egon dira Bankiako gogorazten ditugun beste gastu batzuk, CANek beste enpresa batzuei kobratutako fakturak, esaterako (luxuzko hotelak, jatetxeak, bainuetxeak, bitxiak, gama altuko autoak...). Faktura horiek Nafarroako Parlamentuko ikerketa batzordearen eskutan daude, baita Miguel Sanz eta Enrique Goñik erabiltzen zituzten kontu eta txartelak ere.

Bi adibideok, Bankia eta CAN, botere publikoak kontrolaturiko erakundeetan izandako ustelkeriaren isla dira, euren hondoratzea ekarri duen ustelkeria. Eta izebergaren punta besterik ez dira, horrelako erakundeetan izandako politika ustelaren zati txiki bat. Arduradun politiko eta sindikalek, bai eta kudeatzaileek ere, lapurtutakoa itzuli beharko lukete eta inhabilitatu egin beharko lituzkete horrelako enpresa publiko edo erdi-publikoak administratzeko.